Campo & Ochandiano

# Markako teknikaria

**Lanpostuaren egitekoa**

Komunikazio sailaren barruan BBK marka kudeatzea, erakundearen proiektu, ekitaldi eta ekintzetan modu koherentean aplikatzen dela ziurtatuz.

**Funtzio nagusiak**

- BBKren marka-estrategiaren garapenean parte hartzea, Zuzendaritzarekin koordinatuta, estrategia hori ezartzen eta garatzen lagunduz.
- BBKren berezko proiektuak berrikustea, bai eta hitzarmenak, babesleak eta lankidetzak ere, markaren arloan ezarritako irizpideak betetzen direla bermatzeko.
- Kutxabankekin, fundazioekin eta kanpoko beste erakunde edo enpresa batzuekin koordinatzea BBK markarekin lotutako baterako ekintzen garapena.
- Ekitaldi eta ekintza korporatiboen antolaketan eta garapenean parte hartzea, barneko arloekin, hornitzaileekin eta inplikatutako erakundeekin koordinatuta.
- Merchandising-aren eta beste elementu korporatibo batzuen produkzioa koordinatzea eta jarraipena egitea, markaren identitatera eta irizpideetara egokitzen dela bermatuz.
- Publizitate-kanpainen eta marketin-ekintzen garapenean parte hartzea, gainerako komunikazio-taldearekin koordinatuta.
- Markako ekintzekin lotutako hornitzaileen eta kanpo-zerbitzuen jarraipena koordinatzea eta egitea, Erosketen arloarekin lankidetzan.
- BBK-ko arloekin lankidetzan aritzea, Erakundearen proiektu eta jardueretan marka modu homogeneo eta koherentean aplikatzen dela ziurtatzeko.

**Beharrezkoa da**:

- Gradua Marketinean, Komunikazioan edo antzekoan.
- Gutxienez 5 urteko esperientzia markaren kudeaketan, komunikazio korporatiboan edo marketinean, kanpainak, marka-proiektuak eta hornitzaileen koordinazioa garatzen eta gauzatzen parte-hartze nabarmenarekin.
- Talde-lanerako, komunikaziorako, ekimenerako eta barneko bezeroarekiko orientaziorako gaitasuna.
- Gutxieneko euskara-maila.

**Honako hauek baloratuko dira:**

- Nortasun korporatiboaren kudeaketari, babesei, publizitate-kanpainei, ekitaldiei eta proiektuei buruzko ezagutzak hainbat erakunderekin.
- Ingelesaren ezagutza (B2 maila).

Berehalako laneratzea, kontratu mugagabea eta lehiakorra den ordainsaria **eskaintzen dira**, hautagaiaren mailari eta esperientziari egokitua.